

Hondarribian osasunaren arloan eta, bereziki, kardio-babesaren arloan oinarritutako proiektu berri bat egingo da datozen asteetan.

Ospitaleez kanpoko bihotz-biriketako geldialdiak dira nazio mailan urtero 30.000 heriotza eragiten dituztenak, eta biziraupenaren batez bestekoa % 10ekoa da.

Denborak berebiziko garrantzia du. Bihotz-biriketako bizkortzea (BBB) egin eta desfibriladore bat erabiltzen hasi gabe igarotzen den minutu bakoitzean, bizirauteko aukerak % 10 murrizten dira. Bihotza gelditu eta minutu batera, biktimak % 90eko biziraupen-tasa du, eta 9 minutura % 10ean geratzen da. 6 minutu da biktimak bizirauteko eta geldialdiaren ondoriozko sekuelen minimoa jasateko gehieneko denbora.



Datu horiek kontuan hartuta, Hondarribiko Udalak 9 desfibriladore jarriko ditu hainbat tokitan, gertakari larri bat duten herritarrei premiazko arreta emateko.

Arrakasta izateko aukerak handitu egiten dira jarduna berehalakoa eta eraginkorra bada. Hori dela eta, Reanudibex Alert aplikazioa garatu da bihotz-biriketako geldialdi baten aurrean prestatutako erreskatatzaileen komunitatea konektatuta mantentzeko eta aktibatzeko, ekitaldira joan daitezten eta biktima artatzen ari diren pertsoneri laguntza eman diezaieten.

Kasu horiei behar bezala erantzuteko, 100 "erreskatatzaile" boluntarioz osatutako sare bat osatu behar dugu. Prestakuntzetan izena ematen duten pertsona guztiek doako prestakuntza presentzialak jasoko dituzte, eta, gainera, Reanudibex Training online

prestakuntza-plataforman sartzeko aukera emango zaie, bihotz-biriketako geldialdi baten aurrean jarduteko moduari buruzko oinarrizko kontzeptuak eskuratzeko.

Ikastaroetarako datak honako hauek dira.

**Apirila:** 1, 4, 7, 8, 9, 10, 11, 14, 15 eta 16

Egun bakoitzeko ikastaro bat egingo da: 9tatik 12tara edo 17tatik 20tara.

